



Eizkoa (-a) etxebizitza

Aldakerak:

Ahozkoa: Íxkoa / Íxkua / Brábona



43° 10' 11"

2° 35' 13"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería titulada Eizcoa y sus pertenecidos, radicante en termino jurisdiccional de Berriz... se compone de... una planta solar de mil novecientos ince pies cuadrados... y se compone en su piso llano de zaguan, cocina, aposento, cuadra, tejabana y horno; y en el piso principal de tres cuartos, desvan y en el resto hasta el tejado pajar. Su construcción es de paredes de mampostería por los cuatro costados, las armaduras interiores de cal y canto y tabiques, los suelos entablados..."
DJE 3/172 or. (1877)

Bizitza bateko baserri honen inguruan aurkitzen dugun lehen erreferentzia 1704koa da Bizkaiko su-erroldean, hots, *Eyzcoa*. Hortik aurrera, mendeetan zehar izenak aldaketa gutxi ezagutu ditu: *Eizcoa* (1859, BUA, Nmcr.), *Eiscuaga* (1905, BUA, 40. or.) eta *Izcoaga* (1967, BUA, CE.). Auzotarren artean, *Íxkoa* edo *Íxkua* moduan ezagutzen da, baita *Brábona* moduan ere, Javier Bravo zenaren abizenaz, alegia.

XVII. mendean egiten zirenen trazan burututako baserri-etxea da. Fatxadan antzematen den antolamenduari begiratzuz gero, esango genuke Berriz aldean aurkitu ohi dugun estiloari jarraitzen diola, nahiz eta guztiz itxuraldatu duten esku-hartze bat baino gehiago igarri.

Egin zenean, baliteke guztiz bete ez izana hasierako asmoa, eta hiru gorputzez osatuta egongo zen ziur aski. Harrizkoak izango ziren seguruenik aldameneko biak (harlangaitzezkoak zehazki, kantak batzuk ezik), eta erdian atarte zabala izango zuen, bi zutoinek eta erdiko zutikoak eutsitako egurrezko dintelaren babesean. Gainera solairuak egurrezko egituraz jaso ziren, tarteko adreiluzko hormekin. Bertan, ditu leihoak eta ganbaran, leihoak eta txori-tokiak. Beranduagoko berrikuntzetan, atartea ixteko hormak egin, leihoak zabaldu eta eskumako harrizko gorputza izango zena teilape bihurtu zen, baita ezkerraldeko eranskina ere. Bi isurkiko teilatua du.

toponimia

Haitz hitzaren eratorrietako bat da Eiz. A. Irigoienek ustez Bizkaian badira haitz hitzaren erabilera erakusten duten toponimoa zaharrak eta bat dugu Urdaibaiko Axpe, 1051an Izpea moduan ageri dena.